

Piarres Larzabal

**NORK HIL DU
OIHANALDE?**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (I)*, Piarres
Larzabal (Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=275>

NORK HIL DU OIHANALDE?

(Hiru gertalditako ikusgarria)

Jokalariak:

OIHANALDE: Etxeko nausi zaharra, 50 urte.

GAXUXA: Haren emaztea, ixila, ta umila, 50 urte.

JULIE: Heien alaba, neska ona, 20 urte.

MANEZ: Etxeko seme, ezdeusa, 25 urte.

LAURENT: Errekaldeko auzoa, 25 urte.

ERREKALDE: Laurent-en aita, 50 urte.

GANIX ETA XALBAT: Errekalderen lagunak, omore onekoak, 50-60 urte.

OSTALERA: Ofiziokoa, 60 urte.

PIARRES ETA LEON: Ostatuko klientak, 40 urte.

ERRETORA: 60 urte.

KATTINA: Erretoraren gelaria, 60 urte.

JANA-MARI: Mutxurdina, Kattinaren adixkidea, 60 urte.

Joka-lekua:

Euskal Herriko sukalde edozein.

I. GERTALDIA

1. Agerraldia

Arratsa da. Artoa bihitu ondoan Oihanaldek zangoak bertz gorrian ikuzi ditu, ohera joan aintzin. Ama-alabak baxerak egiten ari dira.

OIHANALDE: Gure mutiko hura non da?

GAXUXA: *(Keinu eginez)* Joana.

OIHANALDE: Oraino muga horietan... Pitsik ez da hor-tarik jalgiko: Pitsik! Purtzil tzar bat, ez bertzerik!... Kontrabanda!... A! Emozue horri kantrabanda: Gauak egun... Egunak gau... Nola nahi duzue izan dezan laneko gusturik? Oihanaldeak bertze gizonik beharko du, deus onik jalgitzekotz hemendik. Kontrabanda, trafikoa, merkatu beltza... ez da bertzerik. Eta nik, aitak, zerbait erraiten balin badut, ni hau... ni hura... ni Oihanalde tzarra, ni zaharra... nik pitsik ez konprenitzen... Errazu ba zerbait, zuk ere!

GAXUXA: *(Sorbaldak altxatzen ditu)*

OIHANALDE: Bainan jakin bezate, ene seme-alabek ene semea, ene semea da... eta ene alaba, ene alaba da... bainan jakin bezate ene seme eta alabek, Oihanalde zaharra bizi deno, Oihanaldek manatuko duela Oihanaldean. Oihanaldea! Nik aztapar hauetan jalgiak eta onduak ditut hemengo lurrak, ba, nik. Ni ari izana naiz hemen lanean; animale batek ez baitzituzken eginen, nik hemen egin ditudanak! Ni, Oihanaldeko etxeko nausia, bainan noren izerdiz, noren aztaparrez? Ene izerdiz eta ene aztaparrez... ederki gostarik ba, ederki pekaturik. Eta holako seme purtzil bati utzi behar diotala etxalde hau! Ez eta ez! Oihanaldea ene etxea... Ekar-azue oihal bat! *(Zangoen xukatzeke)*

GAXUXA: *(Oihal bat emaiten dio)*

OIHANALDE: Eta hi, Julie, ez din balio, hire Laurent-en ondotik ibiltzea. Ez din Laurent-ek gure Manezek baino gehiago balio: Gure Manezekin hor zia-bilan josia, kontrabandan eta trafikoan hura ere. Eta ihizian... ihizian! Ez din ihiziak laboraririk ontzen: Ihizia, alferrentzat, ez laborarientzat. *(Gaxuxa-ri)* Ekar-tzu hona oinetakoak!

GAXUXA: *(Oinetakoak emaiten ditu)*

OIHANALDE: (*Julie-ri*) Eta bertzerik erranen dinat: Errekalde egundainotik makur izan dun Oihanaldekin. Errekalde, ba: Beren xaharraren hiltzean, badakina zer egin duen Errekaldek? Kurutzea kendu eskutik. Alta, eliza bidean gu gaitun lehen auzoak: Oihanaldek ereman behar din Errekaldeko kurutzea... eta kurutzea kendu zaitanan! Egiten dun holakorik, Kurutzeketaria, dela bataio, dela komunione, dela ezkontza, gomitatzen dun, edozein etxetan; handi izanik ere harekilan. Hark eni kurutzea kendu zaitan eta ene orde, Bittor Sasigainekoari eman. Holakorik ez dun egiten. Eta hik Errekaldeko semearekin ezkondu gogo dunala!... Ez, ez din Errekaldeko Laurentek Oihanaldeko ontasunik milikatuko... Hire gogoetak egin-zkin: Manez seme ezdeusa dinat; kanpoko dun... bainan Manez ezdeusa nahiago dinat etxen, ezenez Errekaldeko Laurent ene alabarekin ikusi... Aditzen duna?

JULIE: (*Nigarrez ari da, ixilik*)

OIHANALDE: Hire gogoetak egin-zkin! (*Argia eskuan, etzatera badoa, arratseko otoitza murmurikatuz eta ateratzean erraiten du*) Jainkoak dizuela gau on!

GAXUXA ETA JULIE: Bai zuri ere!

2. Agerraldia

Gaxuxa eta Julie, ama-alabak, bakarrik, ari dira mahaina altxa, sukalden jatsa, zangoak ikuz, azken lanak despeitzen.

JULIE: *(Mahain xokoan jartzen da nigarrez)* Bazter guziak utzi-ta bere gisa, sehi joanen naiz, Jainkoak daki nora. Ez baita nitaz gehiago nehor mintzatuko.

GAXUXA: Ezti zaite, Julie!... Aita jinen da berriz bere onera: gizonak hola dira; gaur tzarrean zen; holakoetan ixilik behar dira utzi. Gero ondotik biltzen dira, polliki polliki.

JULIE: Bainan, zer du, beti hola, Laurent-en kontra artzeko? Zer egin dio harek? Aitak samur badira, guk zer dugu hoben?

GAXUXA: Hori hola da: Behar ginuke elgarri barkatu... Zer nahi duzu? Aitak beti hola izan du, jite bortitza. Ez da gure aita gizon gaixtoa, bainan gauzak xuxen beharrak. Berak ez du nehuri kalterik

eginen, bainan hainbat gaixto berari egiten badiote.

JULIE: Kontrabanda, kontrabanda... gazte guziek egiten dute: gure Manez-ek ere. Laurent-ek ere, bertzek bezala. Ez duzu ez, muga hegi hontan orai aurkituko, kontrabandan ari ez den mutil gazterik.

GAXUXA: Ba, ba, badituzu heietarik ere; so egizu Gantzaiteko Pettiri, Bortaiteko Pello.

JULIE: Pello ba, zozo hori! Edo Pettiri bezalako etxeke seme handi hura... Bainan gutartekoetarik nor duzu?

GAXUXA: Oihanaldea, Julie, etxalde ederrenetarik duzu: Aise bazinuke hartzale, zuk, Laurent ez bada, bertze bat... Herrian ez bada auzoan.

JULIE: Nik Laurent dut maite; ez bertzerik!

GAXUXA: Haurra! Ez da beti maite izaitea aski... Nik ere...

JULIE: Zer, Ama!... Ez zinena maite zinuenarekin ezkondu?

GAXUXA: Aita maite edo maitatu nuen... Nik ere, zure adinean bertze gizon bat neukan buruan, bainan etxen ontsaxko gerla egin zaitaten.

JULIE: Zertako?

GAXUXA: Ez zelakotz enetakoa gisa: Pestalieria eta alferra baitzen. Eta ez dut segur urrikirik ez harekin ezkondurik: Ikusi dut zer fin gaixto egin duen.

JULIE: Bainan ez da Laurent, zuek uste duzuen pestalieria eta alferra.

GAXUXA: Ez dut erraiten, bainan nola den... Guk burusoek, haurren gainean jartzen dugu esperantza eta zuen onak dugu bilatzen... Ikusiko duzu zuek ere, ama izanen zarelarik.

JULIE: Beraz, zuretzat, Laurent burutik kendu behar dut: aitaren parte hartzen duzu!

GAXUXA: Ez, ez dut hori erran. Ezkontza hori behar bada bururatzen ahalko duzu, bainan beharko duzu emeki ah, Julie. Aitarekin bereziki... Laster kontrabanda beheiti joanen da; orduan da ikusi beharko Laurent-ek zer alde hartuko duen; ea alferkerian gustu hartua izanen duen, ala berriz lanari lotzeko on izanen den.

JULIE: Ari da bai, orai ere, lanean: Nork uste duzu erabiltzen diola Errekaldea?

GAXUXA: Nahi dut, bainan ez da arras etxeari bakarrik emana. Hori behar zenioke konpreniarazi... (Ixi-

lune baten ondotik) Eta gauza hori aipatu diozu jaun erretorari?

JULIE: Ba, atzo, kofesatzean.

GAXUXA: Eta zer erran du?

JULIE: (*Sorbaldak altxatu:*) Booo...

GAXUXA: Segur nuzu, ni bezala mintzatu zaizula...

JULIE: Boo!... Zer nahi duzu erraitea? Ez du erran, bai; ez du erran, ez... Ikusteko... Burasoekin mintzatzeko... Ez nolana hika baia emaitako... eta hola-ko.

GAXUXA: Segur naiz, jaun erretorak nik bezala ikusten duela...

JULIE: (*Jelosturik*) Ama, zuk jada aipatua zenion jaun erretorari!

GAXUXA: Ez eta ba, zerbaitxka... Bon, hobe dugu ohera joatea!

JULIE: Ni ez oraino... Igandetako galtzerdiak behar ditut pasaiatu...

GAXUXA: Arratsarekin lan hortan! Ez zait ba laket, haurra!

JULIE: Berdin du... Egin behar ditut: Ez dut bertzerik biharko, merkatura joaitako.

GAXUXA: Beraz ez luzegi egon... Ikusten duzu: Hamarrak dira...

JULIE: Baietz, ba, Ama!

GAXUXA: Jainkoak dizula gau on!

JULIE: Gau on, Ama!

3. Agerraldia

Laurent, ihiztari jantzitan eta harma bizkarrean eta Manez, karga bat bizkarrean agertzen zaizkio Julie-ri, kanpotik deika polliki.

JULIE: Nor da hor?

LAURENT: Gu, idek-azu!

JULIE: (Atea idekiz) Zuek, tenore hontan?

LAURENT: Ni ihizin nintzen... Anttonen ostatuan gelditu naiz afariten lagun batzuekin, eta hau ikusi baitut iragaiten, honekin jin naiz.

MANEZ: Gure zakurrak ez gaitik halere salatu!

LAURENT: Leihotik argia ikusten-eta, beha egon gira apur bat...

MANEZ: Aita eta Ama oihan jadanik?

JULIE: Ba, oixtian joanak... Afaltzekoa haiz, hi, Manez? Ekartzen daiat... Ez sobera arrabots egin, zuek!

MANEZ: Ez, ez dinat afaririk nahi: Jana dinagu puska bat, berantean; ekar-an arno xorta bat, bien-

tzat... Hi Laurent, ixtant bat egonen haiz hemen... nik aldiz hobe diat paketa hau segurtatzea, lehen-bai-lehen.

LAURENT: Norentzat duk hire paketa?

MANEZ: Ganix Botigesarentzat, zernahi puxketeria...

LAURENT: Bai hobe duk ba: tenore ona; nehor ez duk karrikan.

MANEZ: Banihoak!... (*Zakua bizkarrean badoa, Julie-ri erranez*) Julie, haugi, zakurra engana-zan, ni urrundu arte!...

4. Agerraldia

Julie eta Laurent goxoki daudelarik, Oihanalde etorriko zaie.

JULIE: Nahi duzu bertze xorta bat? (*Xorta bat emaiten dio*)

LAURENT: Eta nola pasatu duzu eguna?

JULIE: Ez zadazula aipa! Zernahi pasatu dugu.

LAURENT: Zeren gainerik?

JULIE: Ba!...

LAURENT: Zer, ba?... Erradazu!

JULIE: Aitak ez du pitsik entzun nahi, ni zurekin ezkon-
tzerik.

LAURENT: Zer arrazoin emaiten du?

JULIE: Beti berak.

LAURENT: Zer bada? Zer du nitaz erraiteko?

JULIE: Ez zarela Oihanaldea erabiltzeko on.

LAURENT: Ez Oihanaldearen erabiltzeko on? Errekal-
dea ez duta erabiltzen?... Ez da Oihanaldea
hainbat gehiago.

JULIE: Ez da hortan.

LAURENT: Zer du erraiteko bertzerik? Ihizian, eta kon-
trabandan ere, bai ibiltzen naiz, bainan izarian...
Laborantza segiaraziz: aurten ere, berak baino
lehen ereinak nituen ogiak. Gero ogi guziak
jorratu ditut nik. Berak egin ditua? Doala gure
baratzera... Ikusiko du han lo egoiten garenetz;
belar tzar ondo bat ez baitu kausituko. Gure
etxeko berro eta ipularrak garbi atxikiak ahal
dira! Ez dugu Errekaldean Oihanaldeaz jelos
izaiterik.

JULIE: Ba, gure aita artzen da hola.

LAURENT: Zuen aita zahartzen ari da eta bere adinean
ez dezake ihizia edo kontrabanda laborantzare-
kin erabil. Bainan gu gazte gira oraino; hori

behar luke konprenitu. (*Edaten du, ixilik egoiten, eta*) Eta Amak, zer dio?

JULIE: O! Ama, ez alde, ez kontra... Amaren baia, laster baginuke!

LAURENT: (*Julie eztiki bereganatuz*) Errazu, Julie, ez bagaituzte Oihanaldean onartzen, hatzemanen dugu ba bertze zerbait: Nahi duzu Ameriketara joan gaitezen biak?

JULIE: (*Amentsetan*) Ameriketara?

LAURENT: Zernahitako prest naiz, zurekin ezkontzeko. Nik zu zaitut maite (*Besarkatzen du, bertzea urruntzen zaiolarik*)

JULIE: (*Arma erakutsiz*) To, hori duzuia arma berri hura?

LAURENT: Ba, hori bera, bi zilotakoa. Holako armarik ez du nehork, hemen, herrian. Hau basurde hiltzeko berezia da: Ikusten duzu basurde kartutxak nolakoak diren. Ez da holakorik hemen gaindi; baditut ihiztariak jelos direnak. (*Besarkatzen du Julie*) Bainan, errazu, segituko nuzu berdin Ameriketara?

JULIE: (*Ixilik*)

OIHANALDE: (*Nehor oharhu gabe sartzen da*)

LAURENT: Gero ere, zure aitarengana ezkontzen bagira, ez dakit aise elgar adituko dugun bere ideia bitxiekin...

5. Agerraldia

Aintzineko berak eta gero, oihuetara, Gaxuxa ere agertzen da.

OIHANALDE: *(Orroaz)* Zer, hau ene etxean!... *(Julie izitua eta Laurent-i mintzo etxeko nausia)* Kopeta baduk, bertzeak bertze, ene etxean sartzeko! Ene ixilik! Gauaz! Ene alabarekin!

JULIE: *(Umil-umila)* Ez ginuen gaizkirik egiten!

OIHANALDE: Ez gaizkirik egiten? Zer da bada gaizki? Ala Oihanaldea bazartei bat bilakatu nahi duzue? *(Laurent-i)* Hi, habil kanpora! Eta ez zakala gehiago zangorik sar Oihanaldean! *(Alabari, mehatxuka)* Eta hik ez balin badun beharrondoko bat nahi, habil lehen-bai-lehen ohera!

JULIE: *(Oihu egiten du eta ama Gaxuxa heldu)*

LAURENT: *(Julie-ren alderdia hartuz)* Ez zazula hunki! Ez da horren falta. Ene falta da: Manezekin jina nintzen eta Manezek nau sar-erazi.

OIHANALDE: Gezurra! Manezen ganbaran izan nuk...

Ez duk Manezik han eta ez duk Manezik hemen.

JULIE: (*Izitua*) Ez, aita, egia da. Manezekin jina da. Marrez, Ganix-en botigara joan da, bainan ixtantean hemen izanen da.

OIHANALDE: Ixilik! (*Laurent-i*) Beti, hik jakin-zak: ez diat hi bezalako forjrik onartuko Oihanaldean! Sekulan! Hire sareak heda-zkik bertze nonbait, bainan ez Oihanaldean.

LAURENT: Zer duzu enetzat erraitekorik? Zer zira zuhaur? Norentzat hartzen duzu zure burua?... Gizon abre, erre, txar bat, horra zer ziren zu!

OIHANALDE: Baduk kopeta, ene etxean, eni hola mintzatzeko! Baduk kopeta! (*Lepotik lotzen zaio, bertzeak eskuak atxikitzen dizkio eta emazteak, heien bereiztera ari dira*)

JULIE: Otoi, Laurent, ez zazula aita jo!

LAURENT: Ez, ez dut joko: Ez zait balio gizon xahar baten kontra eskuen zikintzea! (*Harma eta boneta harturik, badoa*) Ondoko egunetan mintzatzeko gira.

JULIE: (*Nigarrez, amaren ondoan*)

OIHANALDE: (*Gogorki*) Aski nigar!... Eskandala honek behar zian nolazpait bururatu! Zoazte hortik ohera!

GAXUXA: Eta zu? Ez zira heldu? (*Argia harturik badoa*)

OIHANALDE: Haurrak etxean ez direno, atezainak behar du egon beha. Zoazte eta egizue lo, ahal baduzue... nik behar dut etxeko garbitasuna zaindu. (*Atea gakozen emaiten du*)

6. Agerraldia

*Oihanalde eta bere seme Manez kalapitan ari.
Ama Gaxuxa heldu zaie.*

OIHANALDE: (*Supazterrean itxindiak harrotuz, tartetik*) Oihanalde, jendek erranen ditek: Oihanalde tzarra! Erran bezate! Etxe hontan eskandala bazuian... eskandala behar huela kendu deliberratu duk, hik Oihanalde. Fermuki jokatu duk! Ixtantean semea hor izanen duk. Izan fermu harentzat ere, Oihanalde! Oraiko egunean, gaztek nahi ditek gaina hartu zaharrei: Holakorik ez! Sobera ahul izan haiz, hire seme alabentzat. Egun, hire zaharren pareko agert-hadi, Oihanal-

de! Idor, Bortitz! (*Zakurrak ihausi; atean Julieri deia, eta Oihanaldek atea idekitzen dio Manez bere semeari*)

MANEZ: (*Harritua*) Zu hemen, Aita?

OIHANALDE: (*Goratik*) Ni hemen ba... Eta gero?

MANEZ: Uste nuen ohean zinela.

OIHANALDE: (*Hasarre*) A, uste huen... uste huen! Nik ere uste nian hala hintzela. Adi-zak, Seme! Azken aldikotz gau hontan, gaur gure atea egonen duk hiretzat zabalik: Edo gurekin lo egitera jinen haiz, edo kanpo hortan lo egingen duk.

MANEZ: Aita, zuri zer zaizu, ni kanpoan izanik ere? Zure bizia ez dut hunkitzen. Ni eneari ari naiz.

OIHANALDE: A, ba!... Ez haiz hola mintza beldur: Hire biziari ari haizela, gauak egun eta egunak gau, kontrabanda eta trafikuk, purtzil bat bilakatua! Hori duka hire bizia?

GAXUXA: (*Oihuetara etorria*) Otoi ixil! Otoi ixil!

MANEZ: Nik ahal dutana egiten dut eta menturaz egiten dutana ez nezake egin, zu bertzerik bazine.

OIHANALDE: Zer darasak? Orai ene falta duk, hi purtzilkerian bizi bahaiz?

MANEZ: (*Gero ta gorago*) Bai, zure falta: Egundainotik, denak zure, jokatu zira. Ez dautazu eman sake-

lako sosik ere, igandetan, lagunekin jalgitzeko. Eta nere doia behar izan dut nonbaitik jalgi.

OIHANALDE: Sakelako sosik ez eman? Zenbat igandez ez dituk ukan ehun libera ene eskutik, hik! Aitorzak!

MANEZ: Zer da ehun libera, oraiko egunean? Nora nahi duzu jalgi, ehun liberarekin? Ez duzu pinta arnoarenik ere!

OIHANALDE: Gure denboran, sos batekin edo biekkin jalgitzen gintuan eta ez ginuelarik aski, araberran gobernatzen: Hire konpainia sobera handia balin bada ehun liberako moltsarentzat, har berrogoita hamar liberako konpainia.

MANEZ: Hasteko, badut aski bizi hontarik... Askia badut zuretzat, zuretzat eta Oihanaldekotzat lan egirik. Tenora liteke konduen egiteko. Eta lagunak irabazian dabiltzanak, honenbertzeko batean dabilta. Nik ere nahi dut honenbertzeko bat Oihanaldekotzat. Egin lanentzat behin, eta eginen ditudanentzat gero.

OIHANALDE: Zer galdatzen duk? Etxe partea?

MANEZ: Ba, preseski... Edo bederen lan saria.

OIHANALDE: Ba, ukanen duk etxe partea, baina Oihanalde zaharra bizi deno, ez. Ez! Aditu duka?

Orai artinoko lanak, eta gerokoak, pagatuak izan-
nen zaizkik etxe partearekin. Ni bizi naizeno ez
duk deusik hemendik jalgiko. Etxekoak bota
etxeari eta gero dena betan tira... Ez, pirka,
pirka etxea tira. Eta ez bahaiz hola kontent,
atea hor duk: Habil kanpora, eta ez zak sekulan
zangorik hemen sar!

MANEZ: Joanen naiz, bainan ez eneak hartu gabe. Eta
oroit zaite, gure kanpora igortzea lanik erretxe-
na egiten duzula. Ez jin ondoko egunetan gure
bila, zure errematismen artatzeko!

GAXUXA: (*Jatera emanaz*) To, jan-zak eta ixil, otoi!

MANEZ: (*Jatekoa baztertuz*) Ez dut pitsik nahi! (*Aitari
buruz*) Hola denaz geroz, apaila zaite nahi
duzun bezala. Jakiten ahal duzu, zure hitzez
oroituko naizela. Ondoko egunetan ez ibil ene
ondotik!

OIHANALDE: Habil nahi dukan tokira. Ez diat batere
hire laguntzarik pretenitzen. Haatik hemen
egoitekotan, beharko duk eni sumetitu.

MANEZ: Ontsa! Badakit zer egin (*Ateratzen da etxetik,
atea zerratuz*)

OIHANALDE: Aspaldi ordria egin beharra zen etxe hon-
tan. Orai egina da. (*Emazteari*) Sar-zkizu jateko

horiek! (*Berak sua itzaltzen du*) Goazen orai
ohera! Oihanaldearen zimendua azkartu da
gaur. Bazuen beharra.

OIHALA

II. GERTALDIA

Joka-lekua:

Edozein ostatu.

1. Agerraldia

*Ostalera badabila eskuin ta ezker bere lanean,
bainan hura hurbiltzean Oihanalde aita-semeak
ixiltzen dira.*

MANEZ: *(Zainetan, aitari buruz, baso arnoa eskuan)*

Ba, Aita, behar ditugu bi ele serio egin.

OIHANALDE: Mintza hadi!... Zer duk erraiteko?

MANEZ: Joan den aldian etxetik kanpo ezarri nauzu.

OIHANALDE: *(Bizi-bizia)* Ez duk egia: Hihaur joan haiz!...

MANEZ: Zuk ezarri nauzu kanpoan, zuk erran dautazu:
Habil kanpora!

OIHANALDE: Eta gero! Zertara heldu haiz?

MANEZ: Etxetik kanpo ezarri nauzu, deusik eman gabe: ez arroparik, ez gauzarik, ez dirurik.

OIHANALDE: Ez duk egia! Biharamunean berean gure emaztekiak ekarri dizkik arropak hire mutil etxera. Ekarri dizkik hire puskak eta ez zekiat ez zenetz dirurik ere...

MANEZ: Ez, ez zen dirurik; ez dut pilik ukan! Soineko arropak, doi-doia.

OIHANALDE: Zer pretenitzen duk bertzerik?

MANEZ: Zer pretenitzen dutan? Hogoi-ta-bortz urte artino, etxean ari izan naiz lanean, beti etxeari emaiten. Oihanaldea azkar bada, ene izerdiaren gostuz da parte... Ene lanaren saria galdatzen dut.

OIHANALDE: (*Maltzur-maltzurra*) A, Seme, hortan hiza? Zorrak egin dituk? Entzuten ditiagu guk ere, halako berri zenbait: kontrabanda, ba... Jo, jo kontrabandari!... Atzo hogoi irabaz eta egun ehun gal! Eta hik galdu!... (*Goraki*) Entzun-zak, Seme! Oihanaldekoak Oihanaldean egonen dituk; etxekoak etxeko eta ni bizi naizeno, ez duk Oihanaldetik deusik tiratuko... Ni hil-eta ba, orduan izanen duk diokan izerdiaren saria, bainan ordurarte pitsik!

MANEZ: (*Erdi nigarrez*) Otoi, Aita, konpreni-zazu... Ez dut parte guzia galdatzen, bainan zerbait. Nik ere behar dut bizi.

OIHANALDE: (*Gogorki*) Zer? Hogoï urtetan eta osagarri betean, mutiko bat nigarrez, bere burua ezin haziz? Aski duk lanean artzea... Joka lurrari!... Lurrak emanen dauk gaurkoa eta biharkoa... (*Xutitzen da*)

MANEZ: Hori duzu azken hitza?

OIHANALDE: Hori bera.

MANEZ: (*Hasarre*) Banekien gizon herratsu, idor bat zinela: Egundainotik bertzen sofri-araztea izan dela zure atsegina. Orai ikusten dut ez direla horiek erran batzu bakarrik, bainan egiak direla... Ene aita zira bainan mesprexatzen zaitut. (*Nigarrez*) Ene beharrean ibili naiz zure ondotik; zure aintzinean umiliatu naiz, bainan zure urgu-lu gogorak, seme bati barkatu baino, nahiago izan du bere tema satisfatu. Ez zaitut gehiago ene Aitatzat hartzen. (*Badoa*)

OIHANALDE: (*Bakarrik*) Hori, ba, hori! Sofri hor! Sofri-karioak du gizona bentzutzen eta zentzatzen. Ikasak, Seme, zer odoleko gizonek muntatu duten Oihanaldea! Ez izan amatar, bainan aita-

tar! Bihotz eri hori amarena duk. Izan gizon,
Seme! Oihanaldea atxik beti, hasi maila hartan!
(*Xutitzen da eta badoa emeki*)

2. Agerraldia

Oihanalde joaitearekin, Piarres eta Leon sartzen dira ostatura.

LEON: (*Oihanaldez mintzo*) Ikusi duka horren kara? Ba bide dik egun, nahigabe zerbait. Hobeko diagugure afera geroxagoko uztea...

PIARRES: Alta, Manezi ere, kukuak kontra jo ziokek! Ez duka ikusi haren kopeta beltza?

OSTALERA: Gorritik?

LEON: Ba, ba, usaian bezala... Errazu, zer egin dituzu, oixtiko klient horiek, ala pozoindatu?

OSTALERA: Zertako?

LEON: Zer begia ez zuten, batek ala bertzeak, hemen-dik jalgitzean! Iduri zuten gizon hat hila... Oihanalderen mintzatzera jinak ginen, eta ez gira atrebitu ele emaitera...

OSTALERA: Ez zekiat zer pasatu duten elgarrekin: Ez diat nahi izan sobera ausart, bainan xintximariak baziztekan memento batez.

LEON: Oihanalde gizon bortitza duzu gero: Ikusi dut hori lehen, nik ere; eleak motz eta oso, gure gizonak. Eta semea ez ote du oraino etxen sartua?

OSTALERA: Ez dituk hortan, to! Mutil, mutil, Oihanaldeko semea! Eta baheki non?

LEON: Non?

OSTALERA: Errekaldean, lehen auzoan, Oihanalderen etsai handienaren etxean. Ez duk ez naski arras mutil ere izan behar: Kontrabanda eta trafikuko pilixta batekin bizi.

LEON: Ez dituk, to, berriz ere auzo hi horiek aise akomeatuko!

OSTALERA: Ez die makurra oraikoa: Horien aitasoen denborakoa duk hastapena edo lehenagokoa. Bitxi duk haatik, nola jende batzuek atxikitzen duten beren herra!

LEON: Zer mutiko da Oihanalde seme hori? Fama hitsak entzunak ditiat: Ziloak egiten badakiela, bainan ez hain ontsa heien tapatzen.

OSTALERA: Badiat uste, gaizki abiatu den: Berrikitan guardek gelditu dituzten ardi horietan partzuer zuian, eta geroztik, ezin berriz goiti jalgiz ari omen duk.

LEON: Eta egia ote da, Oihanaldeko alaba begistatzen duela Laurent Errekaldekoak?

OSTALERA: Ba, hori gainera, azen ontzeko! Aitak hilka eta seme-alabak pottaka! Zer den haatik mundua!

LEON: Eta Oihanalde zaharrak zer dio hortaz?

OSTALERA: Ez zekiat segurik, bainan pinpi panpa zerbait izan behar die beren artean: Berrikitan Oihanaldeko sukaldean, bi gaztek entzun omen ditek beren bizian oroitzeko etsorta, Oihanalde zaharrak emanik!

LEON: Hauxe duk historia! Oihanalde bere seme alaben kontra... Errekalde gaztea aitarekin samur eta alabarekin amodiotan... Errekalde zaharra?... Zer saltsa.

OSTALERA: Eta badiat uste, ez den hortan geldi. Errekalde zaharra hasia omen duk polliki Manezez arreguratzen: Hau bere gain ari duk, kontra-banda eta ixtorio; pitsik ez dik egiten Errekaldean; pitsik ez emaiten... eta han bizi.

LEON: Molde txarra hori, luzaz irauteko... Eta Errekalde-
dek xorta bat edaten badu, atxikiko dik gero
harek ere bere eskualdea...

OSTALERA: Nahi nizkek, to, Errekalde eta Oihanalde,
biak ikusi buruz-buru, arrazoinka... Ez zekiat
batere hor Oihanalde nausi litekenetz...

LEON: Zenbait aldiz ba... Ez beti.

OSTALERA: *(Keinu eginez)* Ixo!

3. Agerraldia

Aintzinekoen artera heldu Laurent eta Manez.

MANEZ: *(Ustegabea)* To, hor zaretea! Uste nian
nehor ez zela.

LEON: *(Piarresi keinu eginez)* Ba, xuxenki kanpora ari
gintuian. Jar zaitetze hemen berean: Gure
tokiak bero-beroak dituzue.

MANEZ: Berdin, to!... *(Bertzeen lekua hartzen dute)*

OSTALERA: Zer hartuko duzue?

MANEZ: Ekar-azu gorritik!

OSTALERA: *(Ekartzen du arnoa eta bertzek hartzen
dute, ixilik)*

LAURENT: Zer huen beraz erran nahirik?

MANEZ: Dena den erraiteko, diru beharretan nuk.

LAURENT: Ez dik oraino hamar egun, prestatu dizkiat hamar mila libera.

MANEZ: Bazekiat.

LAURENT: Zer egin dituk?

MANEZ: Ardi batzu galdu ditiat, handik honatekoan...

LAURENT: Eta zer? Nahi huke berritz dirua eneganik?

MANEZ: Ba.

LAURENT: Ez zezakeiat.

MANEZ: Konpreni-zak, Laurent!... Baitezpada behar ditiat: Jakesekin partzuer nuk ardi horien ixto-rioan. Jakes preso duk, eta libratzeko behar ditik hamabortz mila libera pausatu. Hitzeman zioiat ekarriko nituela, harek oro bere gain hartzen ditik, bainan hitza ez balin badut betetzen, orduan ni ere saltsan sartuko naik... eta xahu nauk.

LAURENT: Ontsa mintzo haiz, bainan nik ez zezakeiat gehiago dirurik presta.

MANEZ: Ez duka ene baitan konfiantzarik? Etxe parte hor diat gero!

LAURENT: Aski diok aitari etxe parte galdatzea.

MANEZ: Aitaren aldetik egin ahalak egin ditiat... alferretan.

LAURENT: Akomea hadi, ahal dukan bezala! Nik ez diat dirurik!

MANEZ: (*Idorki*) Hori duka azken hitza?

LAURENT: Erraiten daiat berritz ere: Ez diat dirurik!

MANEZ: (*Haserre*) Gezurra duk!... Atzo oraino ukanak dituk hogoi mila libera, pottoken pasa-sari.

LAURENT: (*Haserre ere*) Nahi baduk... Ba, badiat dirua, bainan ez hiretako. Adizak, ez hiretako! Uste nian konprenituko huela, hoin garbi mintzatu gabe.

MANEZ: Zertako, ez enetako? Enganatu haut nik, behinere?

LAURENT: Ez diat hori erraiten.

MANEZ: Zer duk bada? Ez haiz ene koinat beharra? Ez ahal haut egundainotik lagundu Julie-ren bil-tzen?

LAURENT: Ba, ontsa duk... bainan ez daiat dirurik prestatuko. Eta hortan geldi! (*Kexu-kexua*) Jakin nahi baduk... hona, dena den: Hire haitan ez diat konfiantza handirik. Hor haiz gure etxean, honenbertze egun hontan; ez duk pikorik egi-ten, ez pilik emaiten. Gure aita-amak hasiak dituk arrenguratzen, ean hola bizi gogo dukan... eta gainera, diru galdez.

MANEZ: (*Xutitu da*) Ontsa duk! Orai konprenitzen diat!
Nitaz ederki baliatu zaitetze, hi, ene arrebaren
biltzeko, eta hire etxekoak, gure aitaren burutik
joanarazteko... Eta orai, nitaz aski baliatu ondo-
an... «Habil, hemendik! Ez diagu hire beharrik!»
Ontsa duk! (*Maltzurki*) Bainan urrikituko zaik!
Urrikituko! (*Baztertuz*)

4. Agerraldia

*Errekalde zaharra, trenpu onean sartzan da, Ganix
eta Xalbat bere adineko lagunekin. Guziak bero-
bero.*

XALBAT: (*Lehenik sartzan da, bertzen itzaina bezala*)
Bee, behiak, bee!... Aintzina aintzina!... Ho!
Geldi! Hemen iturria! Jin edatera!...

GANIX: (*Jauzian*) Heup! Hemen garela, gu!... Jaufi!...
Egungo feriak, zurruta feriak... Hala duk errana,
eta ez diagu fama galdu behar... Ostalera, ekar-
azu edatera! Ausarki!... Haugi, hi ere, Errekal-
deko nausi handia! Hemen jarriko gaituk. To,
hire semea ere hemen duk, Errekalde!

LAURENT: Ba, eta mutila ere...

ERREKALDE: Hum! Hiru aldetarik su, gure etxeak!

GANIX: Lasterrago erreko da... (*Manezi*) Haugi, hi ere hona, buru handia! Ez dik ez balio, aitarekin samur haizela-eta, gurekin ere mutur egoitea. Non duk aita txar hura? Ager dadila hona! Atxi-kiko diagu ba, denen artean.

ERREKALDE: Ba, ferietan zuian, preseski.

GANIX: Heziko diagu ba, guk, bere handi guziarekin... (*Manezi buruz, badoalarik hortik*) Haugi bada hona! Norat ari haiz hola?

MANEZ: Etxera ari naiz. Norbaitek behar du, han ere. Sarri artino!

GANIX: Jes! Zer du horrek, hola joaiteko? (*Manezi buruz*) Alo! Zer gira gu, ez aski handi hiretako? Gaizo tipula burua! Jautsi beharko duk ba, hik ere oraino gure heinera... abiatu haizen maneran segitzen baduk...

XALBAT: Mutikoa, ago ixilik! Koinat beharra hemen dik; ez hadila hola mintza familiaz!

GANIX: Berdin dik: Oihanalde horiek, betitik hola izan dituk, handi nahiak. Errak, to, Laurent, hi ez hadila hola bilaka, ezkontzearekin!

LAURENT: (*Irriz*) Ez da irriskurik.

GANIX: Ez zekiat batere... ez zekiat; Julie aitatar duk gero. Ez zietzok galtzak utz hartzera!

XALBAT: Ez balinba!

GANIX: Nork ziaikik? Nik emanen daiat kontseilu bat: Ezkont berri hartan har iezok gaina! Gero aisea-go atxikiko duk. Eta tink atxik, jo behar baduk ere...

XALBAT: Ez; sobera duk hori...

GANIX: Hik ez dakik pitsik: Hi, hire emazteak joiten hu.

XALBAT: Hori ez duk egia... Lehen ere erran daiat, Ganix, hori ez duk egia.

GANIX: Bai, egia duk! Moxkorra sartzen haizen aldi oroz joiten hu emazteak...

XALBAT: Ez nuk ni sekulan moxkorra sartzen. Hi, ba hi, moxkortzen haiz! Egun ere baduk hire partea.

GANIX: Ni moxkorra? Ez duk egia. Erakutsiko daiat ez naizela moxkorra. Haugi hona! Haugi hona!

XALBAT: Zer egitera?

GANIX: Haugi hona! (*Xutiarazten dit*) Emak esku hori! (*Elgarren parrean jartzen dira*) Ean, elgarren parrean eman-eta, nork eginen duen jauzi urrunenik... Hor ageri duk nor den mozkorrenik. Ale!... Jauzi!... Heup! (*Jauzi egiten dute, elgar poxelatzen eta lurrera biak erortzen. Denek irri*)

5. Agerraldia

Oihanalde agertzen da Leon eta Piarresekin, irriak sartzen direla.

OIHANALDE: Zer dira hemen, ihauteriak? (*Errekalderi buruz*) Nolako konpainia halako moldea!

GANIX: (*Lurrera eroriz*) Adixkidea, eni ari zirea?

ERREKALDE: (*Oihaualderei*) Erran nahi dukezu Oihanalde zaldiekin eta Errekalde pottokekin abusatzen direla.

OIHANALDE: Erranak erran.

GANIX: Pottokak izanik ere Oihanaldeko alabidetan, ez dugu zorrik.

ERREKALDE: Utz-ak bere gisa, Ganix! Pottoka garbi hobe dik, zaldi zorriz betea baino.

GANIX ETA XALBAT: Ontsa errana!... (*Irriz*)

OIHANALDE: (*Heieri buruz*) Beharri luzeak, joareka!

GANIX: Ba, Oihanaldeko garaño zaharraren musikatzen.

OIHANALDE: Mihia luzegi duenak, matraila hertsitzea duela irrisku oroit hadi!

GANIX: *(Oihanalde-ri hurbilduz)* Zer? Matrailan? Jo nezazu, ikusteko!...

OSTALERA: Zoaz zure tokira, Ganix!

GANIX: Jo nezala! Ikusteko... *(Paltotik lotzen zaio Oihanalderi)*

OSTALERA: *(Besotik hartzen du Ganix)* Hemen ez dut eskandalarik nahi! Zaude hor, zure lekuan!

ERREKALDE: Ba, hago hor Ganix! *(Oihanalderi)* Haatik, jende bilatzera jina bazira, ager-zkitzu zure kartak laster, mahainera!

OIHANALDE: Bazukek badugun biek partida bat egiteko: Ene semea zer egin duk?

ERREKALDE: Zure semea ene etxera hartu... Eta gero?

OIHANALDE: Auzo alorretako makurrak, auzoko utziko dituk, hortan sudurrik sartu gabe.

ERREKALDE: Ez naiz ni zure semearen ondotik ibili: Bera jin da gure etxera. Errebelatua den kabala teilatupean onartzen ahal da! Zerbitzu bera egin diot gizonari.

OIHANALDE: Zerbitzua! Hire zerbitzua ez duk egin hartaz urrikaldurik, bainan nitaz mendekatu beharrez.

ERREKALDE: Zer dakizu, zuk, zertako egin dudan nik, egin dutana? Ez zira Jainko ene sendimenduen ezagutzeko.

OIHANALDE: Hire sendimenduak ene aldera, aspaldian zilatuak ditiat, kurutze batez hihaurek, duela zenbait urte, markaturik.

ERREKALDE: Zer dautzu oraino kurutze harek sorbalda kargatzen?

OIHANALDE: Kurutzea, Jainkoaren seinalea, hartaz baliatu haiz ene mesprexatzeko, hura eni kenduz, zuen xaharraren ehortzetan!

GANIX: Eta ontsa egin du, zu bezalako debru bati Jainko seinalerik ez eskuetan ezartzea.

OIHANALDE: *(Ganixi keinu)* Beharrondoko bat?

OSTALERA: *(Artetik sartuz, Ganixi)* Ganix, zoaz kanpora! Zuk emaiten duzu hemen kalapita.

GANIX: Ez nuk joanen... Gizon hori behar diat lehenik porroskatu...

ERREKALDE: Goazen hemendik! *(Xutitzen da eta kanpora abiatzen Xalbatekin)*

GANIX: Nik ez diat barkatzen! Ez, berdin dik!

ERREKALDE: *(Ganix besotik harturik)* Haugi, Ganix! Utzak bere gisa! *(Oihanalderi)* Hola denaz

geroz, segituko dugu bakoitxak gure saila;
azkenik joanen denak irabaziko du auzia.

OIHANALDE: Habil! Jakin-zak Oihanalde hitaz eta hire egitatez trufatzen dela eta hiregatik deskan-tsuan biziko dela.

ERREKALDE: Hobe harentzat! Errekaldek bertze hain-bertze eginen dik beretzat. (*Laurent-i buruz*) Ez hiza heldu gurekin?

LAURENT: Ez, badut oraino hemen egiteko...

ERREKALDE: Hik ikus! (*Badea, bere bi lagunekin*)

6. Agerraldia

Ostatuan gelditu dira Laurent eta Oihanalde bere bi lagunekin.

LAURENT: Oihanalde, banituzke bi hitz, zurekin egiteko...

OIHANALDE: Zer duk? Erra-zkik!

PIARRES: Utziko zaituztegu...

OIHANALDE: Egoiten ahal zarete ba, dudarik gabe...

PIARRES: Ez, ez, uzten zaituztegu... Erran bezala, gure lan, Oihanalde!

OIHANALDE: Erran bezala! (*Bertze biak, Piarres eta Leon badoaz*)

LAURENT: (*Deliberatuki*) Aferak behar ditugu elgarrekin xuritu.

OIHANALDE: Zer erran nahi duk?

LAURENT: Zu azpiz: ez bekoz-beko -ez baitzira aski gizona hortako- azpiz ari zira ene belzten.

OIHANALDE: Zertara heldu haiz?

LAURENT: Ba, ene belzten ari zira, jenden begietan, zure alabaren begietan.

OIHANALDE: Nik ez diat erraiten egia den hartaz bertzerik.

LAURENT: Zu ari izan zira erraiten, ni pitsik ez naizela... etxe jale bat... trafikulant bat... Egia dea?

OIHANALDE: Non dituk lekukoak?

LAURENT: Ez dut lekukork ekarriko... Bainan badakit... Aditzen duzu? Badakit! Eta ez eni uka! Eta adizazu: zuk nahi ala ez, ezkontza hori eginen da... eginen dugu. Abisatzen zaitut: Askia entzuten dut, alde guzietarik, nitaz zer erraiten duzun... Sekulan zure gezurrez, zure alaba nitarik urrunetzen baduzu... Badakizu basurde ihizin laket dutala... bertze basurde mota bati ere lotzeko on naiz: Atxik hori gogoan!

OIHANALDE: (*Lepotik lotzen zaio*) Zer, haizen bezalako purtzil txarra! Hiri duk, ene adinean, holako arrazoin baten ateratzea? Hiri, Errekalde seme ezdeusa!

OSTALERA: (*Bereiztera ari*) Ale, zuek!... Geldi! Geldi eta egon ixilik!...

LAURENT: (*Herratsu*) Zin dagizuet ezkonduko naizela harekin, behar badut ere harmaz!

OIHANALDE: Harma! Harma! Zer nauk ni, haur bat bezala, iziarazi nahi? Ez nuk ni harma baten beldur.

LAURENT: (*Eroturik*) Jo muturrean, eta garbi nezake hor berean!...

OSTALERA: Habil hemendik! Hobe duk! (*Atera laguntzen du*)

OIHANALDE: Zer uste du ene izitzea, bere mehatxuez? Jakin bezate, horrek eta denek, Oihanaldek ez duela sekulan gibelera egiten. Oihanalde izitzen? Oihanalderen bihotza mendiko harroka bezain gogorra da. Jakin-zak hori, Errekalde seme!

OIHALA

III. GERTALDIA

Joka-lekua:

Apezetxeko sala.

1. Agerraldia

Kattina, apezaren gelaria ari delarik errants kentzen, jaun erretora sartzen da.

KATTINA: *(Trapu bat eskuan, zare batean preso daukan gatuari mintzo)* Ba, gaixoa, zaude hor! Nik saluna egin arte... Badakizu, ez duela jaunak errautsik maite. Laster hor izanen da... To, liburu berri bat... Bardako andere harek ekarria, nik uste... *(Bulego gainetik eskuratzen du eta irakurtzen)* «Les sept chemins qui mènent au ciel». *(Burua makurtuz)* Hobe zukeen horrek ere bide bat hartu balu... eta hura ona... To, jaunaren makila falta!... Eta xapel hoberena ere. Norat joan ote zait, tenore hontan? Apez horiek, ez dutela sekulan erranen, non dabiltzan!

Denak hor beretako atxik, beretako! (*Gatuak marraka*) Ba, gaixoa, ba, badakit hor zirela. Jalgiko zaitut ba hortik, gaixo Muñuñu! (*Besarkatzen du eta libratzen*) Preso zinen: Nausiaren falta da. Ez du nahi zu libro uztea... bazterrak zikintzen dituzula. Horra, orai libro zira... Ale!... Zoaz kanpora, ixtant-ño hat. Eta hor jaun erretoraren xapel xaharra, dena errautsa. Ez du sekulan ezarri nahi. Alta!... (*Berak entsaiatzen du*)

ERRETORA: (*Sartzean ikusten du gelaria, haren xapela buruan*) Kattina!

KATTINA: (*Harritua*) Barka, Jaun Erretora! Barka! Ikusten ari nintzen ean...

ERRETORA: Ean egia erranen duzun?

KATTINA: Ba, ba, Jaun Erretora, horra saluna egina dut... Jatsa kentzea aski. Horra, horra, jartzen ahal zira. Ez dautazu erran jalgitzen zinela... Jes ba, tenore hontan ez da bederen eririk, edo ixtripurik? (*Apezak oliodura ontzi ta zaku pausatzearekin*) Bada norbait hilik?

ERRETORA: (*Trapu bat erakutsiz*) Oihal hori bil-azu!

KATTINA: (*Oihala hartzean*) Gaixo jendea! Nor baita ere!

ERRETORA: Berdin jakinen baituzu... Oihanaldeko nau-
sia dute, hilik ekarri etxera.

KATTINA: Jesus, Maria eta Josepe!... Oihanalde, holako
gizon pizkorra! Nola hil da?

ERRETORA: Plazatik etxerakoan, norbaitek tiroz hil du.

KATTINA: Ooo! Gauza izigarria! Eta nork du hil?

ERRETORA: Nik ez dakit. Eni ez bertzerik galda. Aski
duzu otoitz egitea, hilarentzat.

KATTINA: Ba, segurki eginen baitut... Ho, ho, hooo!...

2. Agerraldia

*Norbaitek joiten du eta Kattina badoa idekitzera
Manezi.*

ERRETORA: Nor ere baita, dagola ixtant bat, nik zape-
tak aldatu artino...

KATTINA: *(Badoa idekitzera eta Manez sartzen da, ilun
eta desegina)* Gaixoa, gaixoa!... Zuen makurra
jakina dut. Zer izigarrikeria! Ori, jar zaite, jar
zaite! Jaun erretora ixtantean hemen izanen
duzu... Eta zer gertatu da gero, xuxen? Zuen
aita gaixoa, hila hatxeman baitute!

MANEZ: *(Burua apal)* Ba, hila!

ERRETORA: (*Sartzean*) Hor haiza, Manez?

MANEZ: Ba, Jaun Erretora.

KATTINA: Eta nor da krima izigarri horren hobenduna?

ERRETORA: (*Kattinari, atera dadin keinu egin ondoan, eta hura joan-eta*) Ba, gaizoa, izigarria gertatu duk zuen etxean... Agian laster xurituko die afera hori!

MANEZ: (*Burua apal eta kapelua eskuetan*) Jauna, hortako jina nintzen.

ERRETORA: Zerbait badakika?

MANEZ: Jauna, nik hil dut Aita! (*Jartzen da, nigarrez*)

ERRETORA: Manez, gaizo Manez, zer gertatu zaik hein hortaratzeko?

MANEZ: Aspaldian makur ginen, Aitarekin. Sos beharretan nintzen, preso joaiteko heinean. Pilik ez zaitan eman nahi... Banekien, diruz kargaturik heldu zela ferietarik... Eta hil dut.

ERRETORA: Jandarmak ondotik dituka?

MANEZ: Ez, bainan Errekaldeko Laurent preso sartu dute goiz hontan: Hura daukate hobendun. Gure aitarekin kalapitan ari izana zen ostatuan, eta tiroz mehatxatua ere zuen. Eta ni Errekaldean bainaiz haren harmaz baliatu naiz eta haren kartutxez. Laster ezagutuko dituzte

basurdeko perdiunak. Laurent-ek ditu bakarrik holakoak.

ERRETORA: Eta hi, zer habila hemen? Zer egin behar duk?

MANEZ: Krima hori eginez geroz, karga bat izigarria banuen, hemen, bularraren gainean eta beti hor nuen Aita, begien aintzinean: Heldu zen zanpazarpa bere bidean eta nik, sasi baten gibeletik, tiro eman diot. Han hil da hitz bat erran gabe.

ERRETORA: Krima handia egin duk hori, Manez!

MANEZ: Ba, Jauna! Hortako jina nintzen: Horren karga ezin atxikiz, ene buruaren arintzera jina nintzen.

ERRETORA: Ontsa duk... Jainkoaren legea handizki kolpatu duk... bainan Jainkoa ona duk... Jainkoak barkatzen dik... Ez zekiat munduko jujeenganik zer jujamendu izanen dukan... Haugi! Goazen elizara!... *(Joaiten dira)*

3. Agerraldia

Jana-Mari mutxurdina etorri da berrietara eta laster erretora ere itzultzen da.

KATTINA: (*Atea berriz ideki aintzin Jana-Mariri, bere buruarekin ari*) Mutiko hori ere, bera jina, aitarren ehorzketen aipatzeko... Igortzen ahal zuen ba, kurutzeketaria, bertzek bezala... Nahiz hola-koetan burua galtzen den maiz. (*Jo dute*) To, zu zira, Jana-Mari! Sar zaite, sar! Ontsa egin duzu jitea. Entzun duzua berri izigarri hori.

JANA-MARI: Ba, ba, segurki eta denen kurrizera jina nintzen.

KATTINA: Jar zaite, hor! Jaun erretora ez da hemen, bainan laster itzuliko da. Oaixtiantxet jalgi da... Badakizu norekin?

JANA-MARI: Norekin?

KATTINA: Manezekin, hilaren semearekin... Gaixo mutikoa!... Ikusi bazinu zer begia zuen. Pena egin daut, ba, zinez! Eta pitsik ezin egin!... Hila, hila izanki!

JANA-MARI: Eta, hiltzaile alimale horrek, zer barnea! Ba zaitzua? Hola bidean bazohan gizona, hotz-hotzean, hola aurtikitzea!

KATTINA: Hartu dutea hiltzalea?

JANA-MARI: Ba, segurki.

KATTINA: Nor?

JANA-MARI: Ez baitzenekien? Laurent, Laurent Errekaldekoa! Goiz hontan ereman dute estekaturik, jandarmek. Ukatzen omen zuen, ba... Bainan beharrondoko batez, laster xefak burua beheiti-arazi ere dio. Pentsa, bada: Berak, barda, ostatuan, errana zion Oihanalderi, harmaz garbituko zuela. Haren kartutxak ere omen ziren, bertzalde. Aise ezagutzen baitituzte haatik, ihiztari horiek...

KATTINA: Zer mendetan bizi giren! Izitzekoa ere bada... Ez da bertzerik entzuten. Eta zerendako, zerendako?

JANA-MARI: Denak sosarengatik, Kattina, sosarengatik... Hor ere Errekalde seme hori bazebilen, dena ihizi, dena trafikatu eta azkenean horra zertaritzen diren...

KATTINA: Errazu berriz, Jana-Mari!

JANA-MARI: Eta jaun erretorak ba ote dazki horiek oro?

KATTINA: Nolaz ez? Goizean, bera han izan da... Oixtion Manez hemen zen...

JANA-MARI: Gaixo apezak! Badu horrek ere zer jasan bere herrian...

ERRETORA: (*Sartzean*) To, zu hemen, Jana-Mari!

JANA-MARI: Ba, azken berri izigarri horren aipatzera jina nintzen.

KATTINA: Uste duzuia, Jaun Erretora, zer gizonaren barnea!

JANA-MARI: Beharko du haatik ontsaxko pagatu... Ukatzen omen zuen, bainan jandarma xefak eman omen dio ukomiloz sudurrean eta bere fantesia sar-erazi omen...

KATTINA: Holakoak, hiltzea merezi luke, Jaun Erretora, lehen-bai-lehen, hiltzea... Sobera uzten dituzte bizitzera holako horiek.

JANA-MARI: Hori erraiten zuten ihiztari batzuek ere: Tribunaletara joan aintzin behar luketela garbitu, holako gaixtaginek. Hara joan-eta, orori barkatzen diotela...

ERRETORA: Ontsa da. Guk, holakoetan, otoitz egin behar dugu hilentzat eta Jainkoari galdatu, bizi direnek, hobeki adi dezaten Haren bakezko deia. (*Otoitz liburua hartzen du*)

JANA-MARI: Ba, Jauna, arrazoin duzu.

KATTINA: Bai, segurki!

JANA-MARI: (*Atera buruz doa*) Sarri artino, Jaun Erretora!

ERRETORA: Agur, Jana-Mari! (*Otoitzari lotzen da eta Kattina sukaldera badoa*)

4. Agerraldia

Aintzineko berak, Erretora eta haren gelaria dira eta heldu zaiote Errekalde.

ERRETORA: (*Kattinari deika*) Kattina, zoaz idekitzera!

KATTINA: (*Ate xilotik behatu-ta*) Jaun Erretora... Errekaldeko nausia!... Zer egin behar dut?

ERRETORA: Ee! Sar-eraz zazu!

KATTINA: (*Harritua, ahapetik*) Kriminelaren aita!

ERRETORA: Hea, higi zaitte!

KATTINA: (*Hotz-hotza, idekitzen du*)

ERRETORA: (*Eskua emanaz*) Zu zirea, Errekalde... Jar zaitte!

ERREKALDE: A, Jauna, jina naiz, ene burua ezin gehiago jasanaz: Jakin dituzu gure ixtorioak...

ERRETORA: Ba, jakin ditut.

ERREKALDE: Sekulan ez nuen uste, ene odoleko norbait, ene seme bat, hortaratuko zela.

ERRETORA: Bainan segur ote da, hura dela?

ERREKALDE: Ba, ba, segur... Hastean ukatu du, bainan sobera froga ba omen dute. Ikusi nuen gure semea, hamarrak aldean, etxetik harmarekin jalgitzen eta Oihanaldeari buruz joaiten. Usaia hori baitzuen, gauak gauari, harma bizkarrean ibiltzeko, azkon, basurde eta azerien ondotik, ez nion kasu handirik egin. Bertzalde, maiz hola joaiten zen ere Oihanaldera, Julie-rengana...

ERRETORA: Bainan, berak aitortu ote du, hobendun dela?

ERREKALDE: Ene aintzinean, ez. Han, ez baitakit. Ene aldetik, segurtamen soberakina badut, hobendun dela.

ERRETORA: Eta jendek zer diote?

ERREKALDE: O, Jauna, nik ez dakit: Nehora ez naiz jalgitzen; nehor ez zaiku etxera hurbiltzen. Han nago, nigarrez urtua, ahalgetua; sendi ditut denak gutaz mintzo, denak guri beha... nahiago nuke lurpean sartu.

ERRETORA: Ez duzu kuraie galdu behar, Errekalde!

ERREKALDE: Egia erraiten dautzut, Jauna... Memento batez, ene burua garbitzekotan izan naiz... Oroi-tu naiz ifernuaz... erlisionerik izan ez banu, ez dakit batere zer egingen nuen, Jauna.

ERRETORA: Ba, egiazko kuraia da, pena guziengatik, biziari ihardokitzea.

ERREKALDE: Ene semea, hortaratua, ene semea!... Nahiago nukeen jakin bera hil dela edo bere bizi guziko enbaliertu edo holako zerbait... Bainan gizon hiltzaile bilakatu, ezin dut onets.

ERRETORA: Beharbada zerbait arrazoin aterako da... Kalapitan hasi eta tiroa partitu edo holako... Ez duzu aintzinetik etsitu behar.

ERREKALDE: Hala balitz! Jaun Erretora, gure semeak egin du ordea... Hontaraz geroz, akabo Errekaldea, akabo segida, gureak egin du!

ERRETORA: Alo, Errekalde ez zira hortan oraino... Harazu kuraie!

ERREKALDE: Ba, Jauna, ba... Bainan badut bertze arregura bat ere.

ERRETORA: Zer arregura?

ERREKALDE: Ene semearen krimaz, nolazpait, ni ere hobendun naizela iduritzen zait.

ERRETORA: Nolaz hori?

ERREKALDE: Egundainotik, gure etxean, Oihanaldekoekin samur izan gira. Zaharren herra, gure gazteri ereman diotegu. Nik, ez banio ene semeari,

Oihanalderen kontra, burua berotu, ez zen menturaz hortaratuko.

ERRETORA: Bixtan da! Herrak ez du nehor ontzen.

ERREKALDE: Eta bertzalde, sobera utzi dut semea, kontrabanda, trafikua, ihizi eta joko horietara lerratzen. Horietan hasiz geroz zen, hola, gauaz jalgitzen.

ERRETORA: Ur xirripa guziek beren sorgiak badituzte: Iturri bat idekitzean nehor ezin erran haren urak noraino egingen duen bide.

ERREKALDE: Eta nik iturri horiek aisexko ideki...

ERRETORA: (*Xutitzen da*) Jainkoa ere zerbait ari baita, ez zazula Errekalde, sekulan kuraia gal! Jainkoak ez du, ezin jasanik, nehor igortzen. Igortzen dituenak, gure onetan ditu igortzen. Guri da, Haren abisuez oroitzea eta baliatzea...

ERREKALDE: (*Xutitzen ere*) Arrazoin duzu, Jauna; entseiatuko gira, egiten arabera...

ERRETORA: Agur, Errekalde, ilunbeen ondotik heldu da argia...

ERREKALDE: Agian ba! Agur, Jaun Erretora!

5. Agerraldia

Erretora bakarrik delarik, Kattina gelaria sartzen da solastatzera.

KATTINA: *(Errekalde gogoan)* A, Jauna, beheiti ekaritzen duela jaun horrek bere buru hori...

ERRETORA: Nortaz mintzo zira?

KATTINA: Errekaldez, Jauna... Jana-Marik erran daut bere semea uzten zuela, nahi zuenaren egitera: Dena trafiku, dena kontrabanda, eta orai horra zertaratu zaion. Zuk, predikuan maiz erraiten duzun bezala nolako aita, halako semea!

ERRETORA: *(Fermuki)* Jar zaite hor!

KATTINA: Jarri? Zertako?

ERRETORA: Kattina, aspaldian ohartua naiz gauza bati: Behar zaitut abisatu.

KATTINA: *(Harritua)* Zertaz, Jauna?

ERRETORA: Jendeak nolanhika jukatzen dituzula. Batzuetan itxuratik beretik, edo norbaiten erranetik, edo zure mementoko omore on edo txarretik. Ez da holakorik behar, Kattina. Juja zazu onez, nahi bezainbat! Txarrez, sekulan! Mintzatu ziren baino usuago zaude ixilik!... Eta ez zaitela hain kurios izan! Aspaldian abisatu nahia

zintudan. Konprenitzen duzuia? (*Badoa bulego-
ra*)

KATTINA: (*Nigarrez*) Ba, Jauna, ba... Ez nuen bada uste, holako bat behar nuela entzun zureganik, nik hoinbertze zerbitzu egin ondoan. Ez nuen segurki holakorik merexi!... (*Badoa sukaldera, hipaka nigarrez*)

6. Agerraldia

Aintzineko sala berean, erretora bakarrik dagola.

ERRETORA: (*Berak idekitzen ate joileari*) Manez! Hi hemen berriz? Zer gertatzen zaik?

MANEZ: Jauna, behar zaitut ikusi.

ERRETORA: Zer duk? Jar hadi!

MANEZ: Ez naiteke gehiago hemen geldi: Sobera da, denek akusatzen naute, jendek, gauzek, inguru-koek, urrunekoek, denek...

ERRETORA: Zer nahi duk?

MANEZ: Bainan ez naiteke gehiago hola bizi: Sobera entzuten dut...

ERRETORA: Zer duk entzuten?

MANEZ: Laurent, Laurent, nola jandarmek, joka, xehatu duten; nola jendea asaldatu den haren kontra; nola batzuek hil nahi duten. Eta horiek oro enegatik... Berak hobenik izan gabe. Ez naiteke hola egon!

ERRETORA: Zer eginen duk hada?

MANEZ: Laurent behar dut lehen-bai-lehen libratu.

ERRETORA: Hire krima aitortuko duka?

MANEZ: Behin pentsatu dut egitea, bainan, Jauna, beldur naiz, beldur etxekoen, beldur jandarmen, beldur jende guziena...

ERRETORA: Zer eginen duk bada?

MANEZ: Izan naiz, erre kara, ene burua aurtikitzekotan.

ERRETORA: Zer xuxenduko huen hola eginez? Ifernu batetik bertzera sartzeko?

MANEZ: Hori bera zait gogoratu. Geroztik bertze zer-bait jin zait burura: Norapait urrun joatea, nehork sekulan ez aurkitzeko gisan. Muga hori ezagutzen dut askitto, eta hor gaindi Ameriketara joan naiteke.

ERRETORA: Xede hori hobea duk... Eta Laurent, hola hola utziz?

MANEZ: Ez Jauna, letra bat igor nezake gure jandar-
mei, muga iragan-eta: Xehetasun guziak ema-
nen ditut, nola ni naizen hobenduna eta ene
ondotik ez erabiltzeko, fin gaixtoa egin dudala.
Zer diozu, zuk?

ERRETORA: Ene eskualdetik, ixilik egonen nauk, daki-
kan bezala. Jainkoaren barkamendua hirekin
duk. Gizonena ukan dezakek, bizi zuzen leial
batez. Aski bertute izanen ote duk hire bidea
betirako oneratzeko?

MANEZ: Iduritzen zait baietz, Jauna!

ERRETORA: Hola balin bada, habil eta ibiliko haizen
toki guzietan Jainko legeari jarraik hadi eta
bihotz oneko gizona izan. Ez ahantz hilarentzat
otoitz egitea!

MANEZ: Ontsa da, Jauna: Ene xedeak hola dira. Agur,
Jaun Erretora eta Milesker!

7. Agerraldia

Jaun erretora bakarrik bere salan.

ERRETORA: *(Bulegoan jarri da, ofizioa hasteko «aitaren» egin du, bainan kurutzeari begira gelditzen da eta erraiten emeki)*

«Bekatuan bizi direneri, emozute barkamendua!

»Familiari, emozute elgar aditzea!

»Gazteri, emozute ontsa gobernatzeari!

»Herrak janak direneri, emozute elgar barkatzea!

»Jauna, emaguzu gure artean bakea!»

(Ofizioa irakurtzen segitzen du)

OIHALA